



Ormaiztegui Udala

**2019eko azaroaren 18ko
UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE OHIKOA**

ORMAIZTEGIIn, 2019eko azaroaren 18an, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, Jon ENRIQUE GALARZA alkate jaunaren lehendakaritzapean BATZARRE ohikoa lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta aldez aurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Ione USABIAGA ARRATIBEL And.
- M. Lierni YURRITA ARREGI And.
- Juan LOBATO AMADO Jna.
- Agustín GILABERT MOLINS Jna.
- Asier ETXARRI ESKISABEL Jna.
- Garazi HACH EMBAREK IRIZAR And.
- Aitor OKARIZ ELORTZA Jna.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatuta:

- Inor ez.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Dunixi MURUA ANTIA Jna.

Segidan Lehendakariak hasiera ematen dio bilerari, Udala osatzen duten eta dagozkion kideetatik gehienak bertaratu direnez eta, ondorioz, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.



LEHENENGO PUNTUA:

AURREKO OSOKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Idazkariak udalkideen esku jarri ditu aurretik posta elektronikoz bidalitako aktak. Eztabaida ireki da eta ez da oharrik edo aldaketa eskaririk egin. Bozkatzeari ekin zaio eta aho batez onartu dira bi aktak, irailaren 16ko Batzarre Ohikoarena eta urriaren 14eko Batzarre Ezohikoarena, alegia.

BIGARREN PUNTUA:

ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzaren R-19/283 Ebazpenetik R-19/372 Ebazpenera doan zerrenda jarri da zinegotzien esku eta Idazkariak galdetu du ebazpen horien inguruko azalpenik eskatu ote nahi duen inork.

Asier Etxarri zinegotzi jaunak "R-19/338, Maiora jna.ren errekursoari ezetza ematea-ITE" Ebazpenaren edukiaz galdetu du. Idazkari andreak erantzun dio, Maiora jaunaren errekursoaren xehetasunetan sartu gabe, Eraikinen Ikuskaritza Teknikoaren (EIT euskaraz eta ITE gazteleraz) araudiak eta araudiaren ezarpenak interpretazio arazoak sortu dituela Udaletan, Eusko Jaurlaritzan eta, baserriei dagokienean, baita nekazaritza arloko sindikatueta ere, hau da, EHNEn eta ENBAn.

Ondorioz, indarrean dagoen legedia eskuan hartuta, alkateak, arkitektoak eta idazkariak gaia sakon aztertu dutela eta, finkatu dituzten irizpideen arabera, nagusiki bertan bizitzeko erabiltzen den eraikina denean, berrogeita hamar urtetik gora dituen etxeak, zaharberritze lan orokorrik izan ez badu behintzat, derrigor izan behar duela EIT edo ITE eginda, eta, horietatik, bide publikora ematen duenak EIT Udalean aurkeztu beharko duela gainera.

Horrez gain, Idazkariak azaldu du eraikina nagusiki nekazaritzarako erabiltzen denean EIT egin beharrean bestelako inspektzioa gairatu behar duela, baina egiaztatu egin behar dela eraikinaren erabilera ustiapenarekin edo jarduera ekonomiko batekin lotuta dagoela nagusiki eta, ondorioz, etxebizitza erabilera ez dela nagusia.

Zinegotziei hitza eman zaie baina ez da beste galderarik edo ekarpenik izan.

HIRUGARREN PUNTUA:

DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADAGOKIO.



Ormaiztegi Udala

...//...

Alkate jaunak hitza hartu du eta adierazi du duela urtebete onartu zela Udal dirulaguntzak arautzeko Ordenantza, baina oraindik onartzeke zegoela Plan Estrategikoa. Orain aurkezten den dokumentuak, Ogasun Batzordean azterturikoak, datozen hiru urteetako ildo nagusiak zehazten dituela eta ondoren etorriko dela Dirulaguntzak emateko Deialdia, bere oinarri arautzaileekin, alkatearen ebazpenaren bidez erabakitzen dena.

Eztabaida ireki da baina ez da partehartzerik izan eta bozkatzeari ekin zaio. Aldeko botoak izan dira guztiak. Ondorioz, ahobatez onartuta geratu da.

LAUGARREN PUNTUA:

02/2019 KREDITU ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

Idazkariak azaldu du urriaren 22an argitaratu zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 02/2019 Kreditu Aldaketaren hasierako onarpena. Erakustaldi publikoak iraun duen bitartean ez dela alegaziorik aurkeztu adierazi du.

Zinegotzi jaun-andreek ez dute zeresanik agertu eta bozkatzeari ekin zaio. Ahobatez onartu da.

BOSTGARREN PUNTUA:

GIPUZKOAKO HAUR ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO ERAKUNDEARTEKO SAREARI ATXIKITZEKO HITZARMENAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak adierazi du 2009an sortu zela Gaztematika deitzen den sare hau baina berrespen juridikoa eman nahi izan zaiola orain, Udalen atxikimendu formalaren bitartez. Dokumentua Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Batzordearen azken saioan landu zela gogorarazi du alkateak eta eztabaida ireki da.

Idazkariak erantsi du hitzarmena sinatzeko ahalmena eskuordetu beharko litzaiokeela alkateari, hala erabakiz gero.

Ez da udalkideen aldetik ekarpenik izan eta bozkatzeari ekin zaio. Ahobatez onartu da Hitzarmena sinatzea eta alkateari sinatzeko ahalmena eskuordetzea.

SEIGARREN PUNTUA:

ERREGUAK ETA GALDERAK.

Ez da udalkideen aldetik aipatzekorik izan. Idazkariak hitza hartu du eta gogora ekarri du Udala "B@KQ (*baku*) txartela" jaulkitzen hasi dela nahi duten herritar guztientzat.

...//...

E-19/12-03



Udal1-batzarre
E-19.12.08

Ormaiztegiako Udala

...//...

Alkatearen Bandoa zabaldu dela gaineratu du, herritarrak Udalaren zerbitzu telematikoak erabiltzera animatzeko, eta oraindik B@KQ (baku) txartela ez duten zinegotzi jaun-andreei gonbita egin die Udaletxean eska dezaten.

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 19:25 ordu direnean, bilkura amaitutzat eman da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2019ko azaroaren 20an.

Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin.: Begonia Antxustegi Bengoetxea

...//...
E-19/12-04